



TXIKITTO!

2025eko urtarrila 229. zenbakia



**PARISTIK NATORREN
ARTISTA BAT NAIZ NI!**

AURKIBIDEA

| | | | |
|-----------------------------|------------|-----------------------------|-----------|
| TXISTEAK | 3 | BANAKIXAN | 10 |
| | | BANAKIXALA | |
| IKASLEEKIN | 4-5 | DENBORAPASAK | 11 |
| BERRIKETAN | | | |
| IKASTETXEETAKO | 6-7 | LEHIAKETA | 13 |
| BERRIAK | | | |
| ESKULANAK | 8 | ZER IRAKURRI | |
| ERREZETA | | BITXIKERIAK | 14 |
| GURE NAGUSIEKIN | 9 | IPUINA | 15 |
| BERBETAN | | ZU BAI MARGOLARI ... | 16 |

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Maketazioa
Ana Aizpurua

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Zergatik ari da negarrez matematikako liburua?
- Problema asko dituelako.

BURUKETAK



- Zer esaten du dinosauroak ohean salto egiten duenean?
- Dino salto!

- Atzo, minutu batean, 800 kaloria galdu nituen.
- Eta nola egin zenuen?
- Pizza lurrera bota nuen!



- Aizu, ba al zenekien nire anaia bizikletan dabilela lau urte zituenetik?
- Hara! Lekutan egongo da honezkero!

Marakak esaten dio txirulari:

- Musika jotzen dugun bakoitzean sekulako buruko minez amaitzen dut.

Eta txirulak:

- Nirea okerragoa da! Ipurdia babaz beteta amaitzen dut nik!





Benetako artistak La Salle ikastetxean

Musikaz eta dantzaz jardun dugu La Salle Isasi ikastetxeko ikasleekin. Carmen Etxaluzek, Luken Osorok, Mara Ruizek eta Alex Bastidak osatzen duen laukoteak musika maite du dantzaren gainetik, baina erritmo batzuen aurrean geldirik gelditzen ez den taldetxoa da.

Musikari dagokionez, denetariko doinuak entzuten dituzte, bakoitzak bere gustuak ditu, baina denek dute trebezia amankomun bat: ukelelea jotzen dute. Txirularekin trebatu ondoren, musika-tresna hori jotzen ari dira gaur egun eta ez dute baztertzen etorkizunean beste zerba it jotzen ikastea. Nork daki, agia musika talde berri baten sorreraren aurrean gaude. Zein izen jarriko liokete taldeari?

BIDEOA
YOUTUBEN



OI-DA batean

- 1- Kantu bat?
- 2- Musika talde edo musikari bat?
- 3- Dutxan abesten duzu?
- 4- Dantzari egiteko tokirik onena?
- 5- Zein musika entzungo zenuke egunero?
- 6- Eta zein ez zenuke entzungo?
- 7- 'Ztanda' edo antzeko telebista-saioretan parte hartuko zenuke?
- 8- Musika entzuteko tokirik onena?
- 9- Abestu edo dantzatu duzun tokirik arraroena?

Elkarrizketa dibertigarri hau ...eta kitto! Euskara Elkartearen Tik Tok kontuan duzue!



CARMEN ETXALUZE

- 1- Telefono
- 2- Aitana
- 3- Ez
- 4- Etxean
- 5- Aitana
- 6- Ingeleseko edo letra ulertzen ez ditudan abestiak
- 7- Bai
- 8- Autoan
- 9- Ez dakit



LUKEN OSORO

- 1- Zetak-en abestiren bat
- 2- Zetak
- 3- Normalean ez dut abesten, baina batzuetan bai
- 4- Egongelan
- 5- Futboleko abestiak
- 6- Shakira
- 7- Bai
- 8- Sofan etzanda
- 9- Amamaren etxean



MARA RUIZ

- 1- Bla bla
- 2- Goazen!
- 3- Bai
- 4- Etxean
- 5- Ingeleseko eta erritmo asko duen musika
- 6- Erritmorik ez duen musika
- 7- Ez
- 8- Plazan edo etxean
- 9- Coliseon



ALEX BASTIDA

- 1- Tacones Rojos
- 2- David Bisbal
- 3- Ez
- 4- Etxean
- 5- Bisbal
- 6- Aitana
- 7- Ez
- 8- Etxean
- 9- Hemen, eskolako jaialdian



ITURBURU

Bigarren hiruhileko honi hasiera jolasekin eman diogu, "Gaur ere Euskaraz" ekimenarekin eta martxa hartzen goazen bitartean, ez dago natura bezalakorik gure burua kokatzen laguntzeko. Inguruko paisaia ederrek eta BARATZAK natura ulertzen, maitatzen eta zaintzen laguntzen digu. Badira lau urte baratza dugula eta gutxienez hilean behin lanak egitera joatea egokitzen zaigu. Sasioan sasioa egiten dugu: konposta egin, aitzurraz lurra jorratu, laiaz irauli, ongarritu, erein, landatu, egiturak prestatu, txartelak egin, hazitegiak prestatu, zaindu, uzta jaso...eta ekoiztutakoa, gelan zozketatu eta gure etxeoekin dastatzen dugu.



ARRATEKO ANDRA MARI

2. zikloko ikasleak Coliseon izan ziren "Friends" euskal filma ikusten. Urtarrilaren azken astean Santa Ageda abestien entsaioekin hasi gara, otsailaren 4an auzoan zehar abestera irteteko. Bestalde, ikasle ordezkarien batzordea jo eta ke ari da eskolako haurren parte-hartzea sustatzen. LHko gela bakoitzeko bi ordezkariak batzen gara zuzendaritzarekin eta gauza asko egin ditugu. Une honetan inauterietarako proposamenak batu eta aztertzen ari gara. Erronka polita izango da aurtengo aratosteak antolatzea!

URKIZU

Abenduan aurtengo Lehen Ezetz Asmatu lehiaketa izan genuen: gure eskolan euskararen erabilera bultzatzeko aspalditik martxan daukagun ekimen honetako sari-banaketa saioa emozio handiz bizi izan zuten ikasleek. 3. zikloko ikasleak Coliseora joan ziren Tess eta ni filma ikustera. Urtarrila hasieran "Digital Unplug" ikastaroa jaso zuten 6. mailako ikasleek. Oso interesgarria izan zen!





ALDATZE

2025ari gogoz eman diogu hasiera Aldatzen! Buru-belarri dabilta 6. mailako ikasleak antzerkigintzan murgilduta. Taldean elkarlanean interpretazio trebetasunak garatu eta ahalegin handiz atrezzo ikusgarriak sortzen dabilta. Ikasturte osoan zehar egindako lanak ikasturte-amaierako jaialdian aktore paregabe gisa aritzera eramango ditu. Artista hutsak dira!



LA SALLE

2025a gogotsu hasi dugu La Salle Isasin. Gabonak pasa dira eta momentu zoragarriak utzi dizkigute familiaren ondoan, atsedean hartu eta energia berrizteko. Begirada atzera botatzen badugu, Olentzero eta Mari Domingi ikastetxean egon zirela gogoratuko dugu, gure txikienak ilusioz betetzen. Gainera, urtea behar bezala bukatzeko, Gabonetako Jaialdia izan genuen eskolako patioan, bertan gabon kantak, dantzak, rapak, mozorroak eta baita Haendel-en “Mesias” hunkigarri bat ere izan zirelarik. Zelako maila aurtengoa!

SAN ANDRES

Gabonetako opor bueltan euskara sustatzeko kanpainaren barruan tailerrak antolatzen ditugu. Astearen lehenengo hiru goizetan 1., 2. eta 3. zikloko ikasleek ahozkotasuna lantzeko jarduera bereziak izaten ditugu: 1.ziklokoek: abestia ikasi, aho-korapiloak eta jolas ezberdinak: bilatu desberdintasunak, zein da arrotza, nor naiz ni, itxi begiak...; 2.ziklokoek: mahai jolasak, marrazki kooperatiboak, sketch-ak antzetzeko eta hauentzako dekoratuak, eta 3.ziklokoek: antzerki tailerra. Lan handia egiten dugu, euskeraren erabilera indartzeko, eta baita disfrutatu ere!



AMAÑA

Oporretatik bueltan Amañako eskolan Elkarbizitza Astea ospatu dugu. Egunero zenbait ekintza egin ditugu: mahai-jolasak, bideoak ikusi eta gure iritzia eman, eztabaidak, jolas aktiboak... Gela bakoitzak egindakoa horma-irudi batean ipini dugu, eta azkenean horma-irudi guztiak eskolako pasabideetatik jarri ditugu. Oso ondo pasatu dugu eta gauza berri asko ikasi ditugu!



Loreontziak botilekin



Edukiontzi horian amaitzen duten ur edo freskagarri botilak gure landareentzat loreontzi bihur daitezke. Birziklatzeko modu politagorik!

- Plastikozko 3 botila handi
- Errotuladore beltz iraunkorra
- Artaziak
- Lixa
- Eskulanetarako pintura akriliko zuria eta larrosa eta berdea bi tonutan.

PAUSOAK:

- 1.- Kendu itsasgarriak botiletatik, ondo garbitu eta lehortu.
- 2.- Marraztu loreontzi bakoitzaren oinarritzko forma, txerriaren eta untxiaren belarritxoak eta igelaren begiak marraztuz.
- 3.- Ebaki bakoitzaren formak artaziekin. Ondoren, lixa erabili, ertz ebakitzaileraren bat geratzen bada ere.
- 4.- Egin zulo bat edo bi botilen oinarrian, landareetako ura atera dadila nahi baduzu.
- 5.- Margotu loreontzi bakoitza kolore batean; konbinatu bi tonu berdeak igelarenean. Utzi lehortzen.



- 6.- Amaitzeko, margotu belarriak, begiak eta gainerako xehetasunak pinturaz eta errotulagailu beltzez. Lehortzen denean, prest izango dituzue loreontzi bihurtzeko!



Sagar-tortitak



Honako hauek besterik ez dituzue behar sagar-tortita gozo hauek egiteko: 200 g gari-irin, 2 sagar, 3 arrautza, 100 g azukre, 2 goilarakada gurin edo margarina, 50 ml esne, gatz apur bat eta kanela-hautsa. Nahastu ontzi batean irina, arrautzak, azukrea, gatza eta esnea. Sagarrak garbitu eta zuritu eta xafla finetan moztu. Urtu gurina zartaginean eta utzi berotzen su baxuan. Jarri gainean sagar-xafla batzuk eta utzi gorritu arte. Isuri gainetik lehen egin dugun oreka eta ondo zabaldu, tortita osatu arte. Kolorea hartzen duenean eman buelta, tortita eginda egon arte. Siropea, mermelada edo eztiarekin zerbitzatu ditzakezue.



Josu eta Jol aitxitxa eta biloba elkartu ditugu oraingoan, Iturburu ikastetxean, bertan ikasten ari baita Jol 6. mailan. Kontu-kontari gustura jardun dugu gai askoren inguruan.

Zer izan nahi duzu/zenuen nagusitan?

Jol: Tenista.

Josu: Esploradore.

Zer ikusten duzu telebistan?

Jol: Animalien dokumentalak.

Josu: Pilota partidak.

Musika-mota gustukoena?

Jol: Rock and rolla.

Josu: Rock and rolla eta klasikoa ere bai.

Abesti bat?

Jol: Jon Bon Joviren edozein.

Josu: Brucen edozein.

Jatekorik gustukoena?

Jol: Txipiroiak saltsan.

Josu: Nirea ere bai!

Sekula jango ez zenukeena?

Jol: Azalorea.

Josu: Dena gustatzen zait.

Dirutza irabaziz gero, zer egingo zenuke?

Jol: Afrikara joango nintzateke animaliak ikustera.

Josu: Eta ni berarekin.

Zein superbotere eduki nahiko zenuke?

Jol: Hegan egitea.

Josu: Ditudanekin konforme nago.

Pelikula bat?

Jol: Troya.

Josu: Gladiator.

Jol, nola definituko zenuke aitxitxa Josu?

Jol: Gehien gustatzen zaidana esango dizut eta da bere barre egiteko modua.

Josu: Oso ume zintzoa eta kuriooa da. Baina batzuetan larregi mugitzen da.

Zerk beldurtzen zaitu?

Jol: Lagun batek esatea ez duela nire laguna izan nahi.

Josu: Familia arteko arazoz.

Zer kenduko zenuke egungo gizartetik?

Jol: Gerrak.

Josu: Harrokeria eta boterea ondo kudeatzen ez dakitenak.

Denboraren makina bazenu, zein sasotara joango zinateke?

Jol: Erromatarren sasoir.

Josu: Frantziar Iraultzaren sasoir.

Asmakizunik onena?

Biek: Gurpila

Zein animalia izan nahiko zenuke?

Jol: Elefantea.

Josu: Zaldia

Zer da Eibarrek duen onena?

Jol: Coliseoa.

Josu: Eibartarrak.



BAÑAKIXAN BAÑAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Gabonetako porrak amaitu direla eta triste? Hamabost egun izan dituzu eta beste askok bat ere ez. Lasai, uste baino lehen iritsiko da Aste Santua. Bitartean, arreta jarri matematiketan, beharko duzu-eta.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Eskuzabala zara eta lagunak asko apreziatzen dute zure izateko modua. Ez begiratu besteek egiten dutenari, zuk zureari. Agian orain ez zara konturatuko baina epe luzera gauza onak besterik ez dizkizu ekarriko.



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Etxeko lanetan gehiago lagundu beharko zenuke. Gurasoak ez dira zure zerbitzariak, etxea denona den bezala zereginak ere denonak dira. Egin ahalegina, etxeok eskertuko dizue-eta.



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Datozen asteotan inoiz baino kirolariago egongo zara eta zure gorputzak eskertuko dizu. Bestalde, 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea berdea izango da.



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Zorionak! Datozen asteotan horoskopoko errege/erregina izango zara! Osasunez bikain egongo zara, ikasketetan zoragarri eta lagunekin une dibertigarriak pasatuko dituzu. Momentuaz gozatu!



Capricornus

abenduak 21-urtarrilak 20

Gertuko baten bat duzu begira-begira, interes handia du zugan. Zein izango da? Hori jakitea zure esku. Atera barruan duzun detektibea eta hasi zaitetz ikertzen. Ezustekoa hartuko duzu.



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Esfortzuak merezi izan du. Lan asko egin duzu eta orain lan horren fruituak jasotzen ari zara. Jarraitu horrela. 8 zenbakiak zortea ekarriko dizu, aste egunik onena asteazkena izango da eta kolorea gorria.



Libra

irailak 21-urriak 20

Haserre aurpegi horrekin nora zoaz baina? Denok ditugu betilun egoteko egunak baina zure larregizkoa da. Egun santu osoan haserre. Emaiozu buelta, bestela ingurukoek ez dizue kasurik ere egingo.



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Kontuz jaten duzunarekin, hurrengo asteetan sabelak ez dizu bakean lagako-eta. Baina zer nahi duzu ba, egun osoan litxarreriak jan eta jan bazabiltza! Amatzoren pureak ondo egingo dizu.



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Ingurukoei noizean behin sustotxo bat ematea ez dago gaizki, baina egunero, 4 aldiz?! Nazkatuta dituzu eta adi ibili, gutxien espero duzunean etorriko zaizu-eta buelta. Zabaldu ondo begiak!



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Badakizu euskara dela euskaldunon hizkuntza, ezta? Eta ondo baino hobeto dakizu. Orduan, zergatik ez erabili? Hizkuntzak erabiltzeko dira, bestela hil egiten dira. Eta gutxituak direnak are gehiago erabili behar ditugu.



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

Fin zabiltza eskolan eta horrek izango du merezitako saria. Segi horrela. Bestalde, izarrek diotenez, kirolean ere fin ibiliko zara hurrengo asteetan. Zorteko zenbakia 7 eta kolorea horia.



ASMATU KODIGOA

ASMATU KODIGOA
HITZAK ALFABETOAREN ORDENEAN

| | | | | | | | | |
|----|----|----|----|---|----|----|---|----|
| 7 | 20 | 11 | | 5 | 17 | 5 | | |
| 5 | 20 | 18 | 11 | 5 | 17 | 2 | | |
| 8 | 9 | 19 | 25 | | 5 | 7 | 9 | 14 |
| 1 | 8 | 1 | 12 | | 4 | 20 | 7 | 20 |
| 25 | 5 | 17 | 7 | 1 | 9 | 19 | 5 | 11 |
| | 5 | 25 | ? | | | | | |

| | | | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| A | B | C | D | E | F | G | H | I |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| J | K | L | M | N | O | P | Q | R |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | | |
| S | T | U | V | W | X | Y | Z | |


HIZKI-ZOPA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | K | N | O | T | M | U | G | A |
| K | A | T | U | A | E | N | Z | T |
| B | M | A | G | R | L | T | X | L |
| E | F | K | J | U | N | A | N | E |
| H | P | Z | B | I | K | M | R | H |
| I | U | T | X | U | S | D | U | O |
| A | X | T | R | I | U | O | R | I |
| Z | R | R | N | I | P | R | O | A |
| U | A | Z | A | L | D | I | A | U |

- 1. Kaba 4. Zaba
- 2. Tasa 5. Menda
- 3. Lehoia 6. Beha



LABIRINTOA



SUDOKUA

SUDOKU

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | | 4 | 2 | | 8 | | | |
| | 1 | | 7 | 6 | 3 | | 4 | 9 |
| 7 | 3 | 2 | | | 5 | 6 | 1 | |
| | 5 | | | | | | | |
| 4 | | | | 5 | | | | 7 |
| | | 9 | 8 | 3 | | | | 2 |
| | | | | | 7 | | | 6 |
| 8 | | 5 | | 4 | 6 | 3 | | 1 |
| | | | | | 1 | 9 | 2 | |



LEHIAKETA

7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **OTSAILAK 10** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa TXOMIN, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburua eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako!
ZORIONAK!

**Mamuki** 6 urtetik aurrera

Mamuki beldurrari buruzko album umoretsua da. Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiatuko dira hura osatu dadin: banpiroa, zontia... baina alfer-alferrik.

**Dragoiak adarbakarren aurka** 8 urtetik aurrera

Amesgaizto familiak amesgaizto izugarriak sortzen ditu. Ametseder familiak amets gozoak. Etsaiak izan dira betidanik, baina Nix eta Sen-ek adiskidetasunaren magia ezagutuko dute. Amesgaiztoen eta Deabruen Gaua iritsi da eta Nix Amesgaizto herriko haur batentzat bere lehen amesgaiztoa prestatzen ari da. Hala ere, zerbait ez dago ondo.

**Tirrin-tirrin istorioak** 10 urtetik aurrera

Tirrin-tirrin, nor da? Liburu bitxi eta entretenigarri honek, maitagarrien ipuin ospetsuei keinu eginez, ez du inor axolagabe utziko. Ipuin sorta hau bi ikuspegitatik irakur daiteke: mutiko batena eta neska batena. Tirrin-tirrin istorioak irakurtzen dituzuenean ezin izango dituzu begiak itxi.

**BITXIKERIAK**

Jaioberriek malkorik gabe egiten dute negar. Izan ere, haurtxoen malko-hodia berandu irekitzen da, eta malkoak ezin dira igaro haurra hazi eta hodiak zabaldu arte.



Jaioberrien zentzurik garatuena usaimena da. Haurtxoak amaren usaina bilatzen du, eta haren ondoan egon behar du, janaria ziurtatzeko eta babestuta sentitzeko.

Jaioberrien bihotza helduena baino askoz azkarrago taupatzen da, heldugabea da-eta. Haurtxo baten bihotz-maiztasuna minutuko 120-160 taupadakoa da eta helduarena minutuko 60-80 taupadakoa.





Bi untxiak

Baziren behin bi untxi, basoan bizi ziren. Oso pozik bizi ziren. Etxean zeudela, dena mugitzen hasi zen. Biak irten ziren ia zer zen ikustera eta ikusi zutena ez zen normala. Dinosaurio bat agertu zen. Untxiek ez zekiten zer egin eta azkar-azkar pentsatu eta ihes egin zuten. Dinosaurioa han geratu zen, eskerrak!!! Korrika zeudela konturatu ziren herrian zeudela eta neska batek esan zien:

- Etorri nirekin bizitzera!

Eta neskarekin bizitzera joan ziren. Handik aurrera oso pozik bizi izan ziren.

ELSA FEIJOO





ZU BAI MARGOLARI!

